

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Iragarkia, Bizkaiko Foru Aldundiak A-3700 (Bilbo/Vitoria-Gasteiz) emakidaren errepideko erabilera orokorreko bidaiari garraio erregularreko zerbitzu publikoaren proiektua onestearna**

2021ko martxoaren 12an, izenpetu zen "Arabako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, A-3700 (Bilbo/Vitoria-Gasteiz) errepideko bidaiari garraio publiko erregularraren zerbitzu bateratua emakida bidez elkarlanean kudeatzeko."

Aurrekoa oinarri hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioko eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuaren urriaren 17ko 642/2022 Foru Aginduaren bidez, A-3700 emakida berriaren aurreproiektua onetsi zen, eta jendaurrean ipintzeko aldi bat ireki zen.

Zenbait enpresa eta erakunde alegazioak aurkeztu zituzten aurreproiektu horren aurka. Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera eman dituzte erantzunak, eta azken erakunde horrek banan-banan jakinarazi dizkie interesdunei.

Jendaurrean jartzeko fasearen ondoren alegazioetan azaldutako alderdi batzuk aurreproiektuan jaso direnez, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek Bilbo/Vitoria-Gasteiz A-3700 emakida bateratuaren behin betiko proiektua adostu dute, eta Arabako Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 6an eman zuen bi administrazioek sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren bigarren klausularen 4.2 apartatuan aipatzen den nahitaezko txostena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioko eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuaren martxoaren 10eko 197/2023 Foru Aginduaren bidez, A-3700 (Bilbo/Vitoria-Gasteiz) emakidaren errepideko erabilera orokorreko bidaiari garraio erregularreko zerbitzu publikoaren proiektua onetsi da.

Proiektu horrek Vitoria-Gasteizen eta Bilbo eta bere metropolialdearen arteko errepideko bidaiari garraio linea erregularretako zerbitzuaren ezaugarriak zehazten ditu, eta zerbitzuaren ustiapena adjudikatzeko baldintza-agiriaren oinarri moduan balioko du.

Horregatik, eta aipatutako hitzarmenaren bigarren klausulako 4.3 apartatuan ezarritakoaren arabera, ALHAOn eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da emakida-proiektua onesteko iragarkia. Haren testu osoa eskuragarri egongo da Arabako Foru Aldundiaren gobernu irekiaren atarian.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 20a

*Mugikortasun eta Garraio zuzendaria*  
**PATRICIA PÉREZ AGUIRRE**